



2. ERANSKINA. Hamabost eguneko erronka

Hamabost eguneko erronka

Berdintasunerako hezkuntza, curriculumaren ardatz, eta oinarrizko kompetentziak

M^a Antonia Moreno Llaneza

LANDUTAKO FUNTSEZKO KONPETENTZIAK:

HIZKUNTZA-KONPETENTZIA: honako gai hauek landuko dira konpetentzia horren gainean:

- Gizarte-erabilerako testuak: aginduzkoa (sukaldaritzako errezeta, zeregin zehatzak egiteko jarraibideak) eta informaziozkoa (emakumeen eta gizonen etxeko lanari buruzko kazetaritza-albisteak).
- Ahozko aurkezpena: plangintza, prestaketa, materiala eta informazioa, informazioaren hautaketa, egitura, jarrera, keinuak, tonua, erritmoa, bokalizazioa, etab.
- Taldearen ahozko adierazpena, esperientzia amaitu ondoren ikasgelan ideiak trukatzean.
- PPTko diapositiben diseinua, kanpoko egiturarako hainbat formatu erabilia: argazkiak, bideoa, testua, izenburuak, etab.

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA:

- Beste pertsonetikiko eta txandekiko errespetua eta ordena, ideiak eta iritziak trukatzean.
- Espiritu kritikoa izatea diskriminazioa eta bidegabekeria eragiten duten genero-aurreiritzien eta estereotipoen aurrean.
- Etxeko lanak eguneroko biziraupenerako ezinbesteko jardura diren heinean aintzat hartzea, eta tradizionalki horietaz arduratu diren pertsonak balioestea.
- Sexuaren araberako lan-banaketak izan duen bilakaera historikoa ezagutzea.

KONPETENTZIA DIGITALA:

- Diapositibak erabiltzea, ahozko aurkezpena laguntzeko.
- Informazioaren teknologiak aplikatzea gelako jardura jakin batean.
- Proiektorea eta ordenagailu eramangarria prestatzea, PPT aurkezpena ikusteko.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

AUTONOMIA PERTSONALERAKO KONPETENTZIA:

- Etxeko lanak, autonomia pertsonalerako eta eguneroko bizitzako independentziarako ezinbesteko jarduerak: higiena, elikadura, norberaren eta besteen zaintza eta abar.
- Proiektu bat egitean, baliabideak bilatzea eta oztopoak gainditzea.

PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Norberaren autonomiarako eta hazkunderako garrantzitsuak diren etxeko lan jakin batzuk egiten ikastea.
- Emakumeek mendeetan zehar egin duten lana ikusgarri egitea (besteak zaintzea eta etxeko lanak egitea).
- Etxeko lana aintzatestea.
- Etxeko lanei buruzko estereotipo sexistak gainditzea.
- Gatazkak konpontzea eta oztopoak gainditzea.
- Ahozko komunikazioa lantzea.
- Informazioaren teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenak laguntzeko.
- Hainbat testu mota aztertzea, irakurmena eta idatzizko eta ahozko adierazpena hobetzeko.
- Nerabeen eta familiaren arteko komunikazio-espazioak sortzea, baita familiaren eta institutuaren artekoak ere.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zertan datzan ulertzea.

PROIEKTUAREN GARAPENA

Ni irakaslea nintzenez, hurrengo hamabostaldian egiteko jarduera bat proposatzen nien: familiarentzako afaria prestatzea, familiako kideak zaintzeko arlo guztiak kontuan hartuta eta ikasgelan aurretik emandako errezeta bat aukeratuta (errezetek aginduzko testu deskribatzaileak aztertzeko ere balio zuten); alkandora bat, kamiseta bat, galtzak eta maindire bat lisatzea; entxufeak konpontzea; garbigailua jartzea, etab.

Jarduerak hiru hamabostaldi iraun zuen, eta gaztelania-eskolak baliatzen genituen, gero ikusiko dugun bezala, ahozko adierazpenarekin lotutako hizkuntza-konpetentzia lantzen baikenuen. Beraz, erabat integratuta zegoen Gaztelania eta Literatura Sailak diseinatutako programazioan.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

Proposatutako jarduerak argazkien eta bideoen bidez dokumentatu behar ziren, eta, gero, ahoz azaldu behar zuten jarraitutako prozesu osoa. Jardueraren dokumentu-frogak erakusteko, diapositiba-aurkezpen bat erabili behar zuten.

FAMILIA-AFARIA:

Helburuak:

- 1- Edozein egunetan zure familiarentzako afaria prestatzea, prozesu osoa barne hartuta: osagaiak erostea, janaria prestatzea, sukaldea jasotzea, mahaia apaintzea, familiako kideak arretaz zaintzea eta erabilitako guztia garbitzea.
- 2- Guretzat garrantzitsuak diren pertsonak ongi tratatzeak eta zaintzeak ematen duen poztasunaz jabetzea.
- 3- Egunero elikatzen gaituzten pertsonen eta gure errutina eta eguneroko bizitza zaintzen dutenen lana ikustea eta aintzatestea.
- 4- Proiektuen zailtasunei aurre egitea.
- 5- Informazioaren teknologiak erabiltzea ahozko aurkezpen bat egiteko.
- 6- Jarraitutako prozesua behar bezala azaltzea (ahoz).
- 7- Sexuaren araberako lan-banaketa tradizionala haustea, eta gizonen eta emakumeen artean bereizketarik ez egitea, eguneroko biziraupeneko eta autonomia pertsonaleko proiektuak gauzatzean.
- 8- Prozesu osoan sortzen diren genero-aurreiritzien inguruan eztabaidatzea, baita ikasleen imajinarioan dauden estereotipoen inguruan ere.
- 9- Azalpen-testuen ulermena eta idatzizko eta ahozko adierazpena lantzea: errezeta eta jarduerari buruzko ahozko txostena.

Edukiak:

- 1- Pertsonak zaintzea, eta tratu ona lantzea, tratu txarrak prebenitzeko.
- 2- Autonomia pertsonala eguneroko biziraupen-lanetan: higiena, elikadura eta zaintza pertsonala.
- 3- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Pertsona diskriminatzen eta iraintzen duten aurreiritzien eta estereotipoen aurka borrokatzea.
- 4- Ahozko aurkezpena. Ahozko komunikazio akademikoaren eta ezagutzak eta sentimenduak modu eraginkorrean transmititzearen garrantzia. Oratoria.
- 5- Gizarte-erabilerako testuak: azalpen-testuak.
- 6- PPTa, ahozko aurkezpenak laguntzeko tresna.
- 7- Sexuaren araberako lan-banaketa.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA**Prozesua:**

Jarduera bakoitzean jarraitu behar den prozesua oso antzekoa da; erronka aldatzen da, baina prozesua berdina da. Hamabost eguneko erronka egitea proposatuko dugu ikasgelan, eta zer iruditzen zaien galdetuko diegu. Erronka batzuetan, besteak beste, plantxaren kasuan, pertsona ugari kexatzen dira. Erronka eta ahozko aurkezpena noiz egingo duten zehaztuko dugu. Aurkezpenean PPT bat erabili beharko dute, jarduera egin dutela frogatzeko argazkiekin. Gero, galdetegi txiki bat emango diegu, ahozko aurkezpena egituratzeko balioko diona:

Zer jarduera egin duzu?	
Noiz egin duzu?	
Zenbat iraun du jarduerak?	
Zer prozesu jarraitu duzu?	
Zeintzuk izan dira oztopo nagusiak?	
Nori galdetu dizkiozu zalantzak?	
Zer sentazio izan duzu jarduera egitean?	
Zer sentitu duzu jarduera amaitzean?	

Helburua da prozesua guztiz betetzea; hau da, erronkako betebeharrak bera ere ez uztea egin gabe: plangintza egitea, prestatzea, gauzatzea, jasotzea, garbitzea, etab.

Gero, aurrez adostutako egunean, ikasleak bere esperientziari buruzko ahozko aurkezpena egingo du ikasgelan, informazioaren teknologiek lagunduta. Horretarako,

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

hamar minutu izango ditu gehienez. Gainerako ikasleek aurkezpenaren jarraipena egingo dute, behaketa-fitxa baten bidez. Aurkezpena amaitzean, horren inguruan hausnartuko dute taldean, aipatutako fitxa oinarri hartuta. Horrez gain, eskola batean, etxeko lanei eta horiek egiteari buruzko iritziak eta bizipenak partekatuko dituzte. Hori horrela, garrantzitsua da azpimarratzea ikasgelan sor daitezkeen genero-estereotipoak eta aurreiritziak geldiarazi behar ditugula. Horretarako, gure ikasleen imajinarioa edo mundu sinbolikoa ezagutu behar dugu, eta horregatik dira hain garrantzitsuak ideiak eta iritziak trukatzeko eskolak.

FAMILIEN IRITZIAK (AMENAK, BATEZ ERE)

Jarduerak iraun zuen bitartean, baita gero ere, ama askok egin zidaten bisita familientzako tutoretza-orduetan. Aita bat besterik ez zen etorri, baina hori, zoritxarrez, ohikoa da Bigarren Hezkuntzan.

Esperientziari buruz egin zizkidaten ohar eta iruzkinei dagokienez, harridura izan zen sentsazio aipagarriena: ez zuten espero institututik horrelako proiektu bat iritsiko zitzaienik, are gutxiago Gaztelania eta Literatura ikasgaiaren barruan, «horren ikasgai serioa» izanik. Beraz, lehenik eta behin, argi eta garbi azaldu nien zer helburu lortu nahi nituen, hizkuntzari, herritartasunari, tutoretzari eta berdintasunerako hezkuntzari zegokienez. «Azaltzeko» behar hori familiengana –kasu honetan, amengana– hurbiltzeko eta ezagutza pertsonalerako eta profesionalerako estrategia bat ere bada; institutua eta familiak elkartzeko beste aitzakia bat, ikasleen onerako. Proposamenak oso harrera ona izan zuen, eta, ohi bezala, familia uzturek ez zuten inolako interesik erakutsi, eta ez ziren tutoretzara etorri.

Bigarrenik, adierazi zidaten pozik zeudela, jardueran parte hartu zutelako. Gogoan izan behar da haiek egin zituztela prozesuaren argazkiak, eta, ia beti, haiei eskatzen zietela laguntza neska-mutilek. Beraz, esperientziaren koprotagonistak izan ziren. Gainera, jardueran, beren seme-alabekin egoteko aukera izan zuten, eta taldean lan egin zuten, helburu berbera lortzeko. Horri esker, dibertitu egin ziren, hizketaldiak, aholkuak eta iritziak trukatu zituzten, eta irakatsi eta ikasi egin zuten. Esperientzia baliagarria izan zen **komunikazio-espazio** komun bat aurkitzeko (batzuetan ez da erraza), eta, gainera, ama batzuk nire iruzkinei adi zeuden, «azterketa» haiek egin behar balute bezala.

Beste kontu garrantzitsuetako bat izan zen aintzatespena sentitu zutela beren eguneroko lanarengatik: eskola-proposamen horrek kontuan hartzen zituen eurak; gainera, seme-alabek «askatu» egiten zituzten zeregin horietatik, eta zuzenean parte hartzen zuten jardueran. Oso pozik zeuden, eta esker ona adierazi zidaten aukera hori emateagatik. Aldi berean, gogoeta piztu zuen seme-alabei ematen zitzaien hezkuntzari buruz: batzuk konturatu ziren, askotan, etxeko lan horiek egitea eragozten zietela seme-alabei, emaitzarekin fidatzen ez zirelako, gehiegi babesten zituztelako edo, besterik gabe, horretan pentsatu ez zutelako.

Eta, azkenik, tratu hurbilagoa eta afektiboagoa izan nuen familiarekin, eta urte osoan komunikazio arina izaten lagundu ez ezik, taldearen jarraipena egiteko baliagarria ere izan zen niretzat.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

EBALUAZIOA

Ebaluazioa, lehen esan bezala, irakaslearen eta ikasleen arteko iritzi-trukean oinarritu zen. Jarduera egin zuten neska-mutilentzat sorpresa polita izan zen ikustea zeinen pozgarria den senideak zaintzea eta haietzako janaria prestatzea. Orobat azpimarratu zuten etxeko lan batzuk zailak direla, lan handia ematen dutela eta denbora eskatzen dutela.

Horrez gain, ahozko aurkezpenen ebaluazioek ere emaitza oso ona izan zuten; nabarmen hobetu zuten ahozko komunikazioa, jendaurrean hitz egiteko beldurra galdu zuten eta beren esperientzia kontatzeko gogoia sentitu zuten. Emaitzak oso onak izan ziren, eta oso egoki erabili zituzten informazioaren teknologiak; izan ere, erabilera mekanikoa edo teknologikoa ez ezik, erabilera pedagogikoa eman zieten.